

 BOOKTEGI

Errusiar
erruletara
jolastu nahi?

JON MIKEL ARANO



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JON MIKEL ARANO

Errusiar erruletara

jolastu nahi?

Aljeriako gerrarenⁱ erdialderako ez, baino lehenagorako erditu zuen esakunea Echevarria kapitainak: akabatuta geunden. Lubakietan egindako lurpeko babesleku ziztrin batzuetan bizi ginen, eta ofizial *eusko-espainiarrak* eta biok partekatzen genuen haietako bat. Egun hartan ere arratsaldez itzuli zen, beti bezala, bere guardia-txandatik; geure gelan sartu, *zirimoniatsu* agurtu ninduen buruarekin, eta ekipoa eranzten hasi zen. Bonben eztanda segidak eta metraileta rafaga trakatakoak kanpoan geratzen ziren.

Errebolberra bere magalean zuela, eseri eta ardo botilari heldu zion.

–Badakizu kondenaturik gaudela, konpai--, esan zidan naturaltasunez.

Ukondo gainean apoiatu nintzen finko begiratzeko berari.

–Benetan uste al duzu galdu dugula?

Ohiko *keinu iberikoa* egin zuen eskuak astinduz eta sorbaldak aldi berean altxatuz.

–Jakina, adiskide. Gizona, beste zenbait aste, ala hilabete?, aguantatu genezake, baina azkenean errenditu egingo gara.

–Baina, Paco, azken batean halakoa da bizitza. Gerra-legea da. Ordea, ez dut uste hilko gaituztenik... Aterako gara hemendik, Indotxinatik legez...

Irmoki behatu ninduen, bere begi ilun iraganak torturatuekin, zera esateko:

–Ez duzu ulertzen. Britainiarra zara, edota iparraldeko hotzetakoa behintzat. Izaera arraroa duzue zuek: garaipenei ematen diezuen harrotasun berberarekin onartzen dituzue porrotak. Niretzako ezin du inolako errendiziorik egon. Duela ia 19 urte, Vizcayan, neure buruari promestu nion zerbait da.

Espainiako Gerra Zibilean zeharreko gertakari batez ariko zen. Echevarriak Errepublikarekin borrokatu zuen, eta 1937 urtean ihes egin bere aberritik, Atzerritar (hau da) Frantziar Legioan alistatzeko. Munduko ‘bala rasa’ askok lurrartzen zuten bertan. Bertan ‘gordetzen’ zirenak ez

esateagatik, kuantu! Nik ez nuen inoren ohorezko kode pertsonalaz eztabaidatu nahi, eta, beraz, ez nuen ezer erantzun.

GIZON OSOAREN JOKOA, ZOTZEAN BIZIA!

Bere errebolberra larruzko zorro sendo eta dotoretik atera eta ireki egin zuen. Une batez latoizko 6 puntuetako zilindroari erreparatu zion.

–Errusiar erruletara jokatu al duzu inoiz?, galdetu zidan.

–Ez seriozki behintzat, erantzun nuen, irribarre urduriz.

Haserre zirudien.

–Beste era batera jokatzeari denbora galtzea da. Umekeriatzat daukat.

Sei balak burdinazko pipatik atera, mahaian ipini, bere hatz finekin ukitu zituen, eta, azkenik, bat aukeratu zuen, errekamaretako batean berriz sartu zuena. Errebolberra itxi, zilindroa jiratu eta bere eskuin lokian jarri zuela. Dedio. Segidan, une izpirik laga barik, katua sakatu zuen niri begiratu gabe.

–Jainkoagatik! –oihu egin nuen, harriturik– Erotuta zaude, ala?

Hasperen egin zuen Echevak, nazkaturik bailegokeen, eta bere arma birkargatu zuen berriro. Baina beste baterako-edo izan beharko zen...

–Egunean behin nahikoa da. Nolabaiteko kemena, ala animo gradua eskatzen du.

Instruktore militar adeitsuaren moduan mintzatzen zitzaidan, kanpainako *maliobra* aspergarri bat deskribatuko balit bezala.

–Behin errusiar ‘zuri’ bat ezagutu nuen –jarraitu zuen, errebolberra zorroan sartuz berriro–, joko... honetara “jolasten” 41 egun iraun zuena. Apartekoa, ezta hala?

Ene literatik, kamainatik, altxatu eta beso muturretik heldu nion.

–Paco, zin egidazu ez duzula hori sekula berriro egingo.

Ez dakit estutu niolako ala esan nuenagatik, zergatik sumindu ote zen. Atzeraka egin zuen; haren aurpegiko tristeziak, zer esan?

–Ez zaitez baboa izan. Hau *nire asuntoa* da.

la geroxeago era ikusgarrian baretu zen, irri egin eta guzti ere bai, baita ironiaz baieztatu ere baieztatu zidan:

– Gainera, nola aldatzen diren gauzak, kamaraden, probabilitateak itxaropentsuak dituk. Bost bataren kontra nire alde. Ze jokalaria zentzudunak eskatuko luke gehiago, ein?

Noski, gertakizunaz ez nien ezertxo ere kontatu gainerako ofizialei. Oraindik aztoratuegia nengoen ikusi nuenaz, modu arrazionalen gaia planteatzeko ene buruari.

Alabaina, amesgaizto latza izan nuen gau hartan bertan: Echevarria mahaiaren bestaldean zegoen, aliritzira hautatutako gaiei buruz hizketan, eta bitartean bere errebolberra lokira gerturatzen zuen berriro errusiar erruletara jokatzeko. Errebolberraren katu kolpekaria sakatu zuenean, armak kristoren eztanda egin zuen, tunel bat utziz bere buruan alderik alde. Leherketaren ondoko odol gorriak gela zeharkatu zuen, dena burmuinez erabat blaituz, neu tartean.

Ez nuen mugitzerik izan, ez hitz egiterik; loa joanda ere, hantxe, `ohe beroan´ banengoke legez, sabaiko ilunpera begiratzuz geratzea lortu nuen lortu nuen bakarra. Isiltasun hondoa.

Errugabe izan arren, amesgaizto errepikagarriak izaten ohi ditut sarritan: Herio-eskuadrakide naiz, beste batzuen atzetik noa, denok kapa eta kapusaiekin, ez dakit norbait fusilatzerako bagoazen ere; armetako burkide bat hil, fusilaren aseguruia emana dudalakoan tiro egiteagatik, eta ez da hala, eta presondegi militarrean nago halere; ala fronte militarren nabil beti, betirako madarikazioen bat banu bezain igualtsu...

Hurrengo arratsaldean, Echevarria gure babeslekura itzuli zen, eztanda-hots eta metraileta tableteatze ez hain urrunez inguraturik geundela. Uhaleria, kartutxo-gerriko, katalejuak, kantinplora, hedeak..., ekipoa erantzi, errebolberra barne, eta baso bat ardo hartzeko eseri zen. Adi-adi begiratzeko nion, “zer ote dakarkit gaur gure Baxoerdik?”, esanez bezala, edo nire baitan esaka. Sustotarako ere ez zidan ematen ja kapitainak. Ezta Vinogradon bageunde ere!

–Nire gizonetako batek ‘mairu’ bat hil du gaur –esan zuen, lehor eta erabakior–. Sekulako tiroa izan da 500 m. ingurura. Largabista mutila! Prismatikoen bidez ikusi dut.

–Berandutzen ari zaigu. Ofizialen kantinan itxaroten egon behar zaizkigu, Paco.

Buruarekin baiezkoa egin eta zutik jarri zen. Geuron buruak garbitu, eta genituen jaka militar hoberenak jantzi genituen. Gero, ate aldera joan nintzenean, hatzak klaskatu zituen, zerbait ahaztu bailuen. Zorroa bilatu, errebolberra atera eta balak ateratzen hasi zen.

–Paco, utzi hori, –eskatu nion ahapeka. Bere ezpain lodiak estutu eta begiraizo zorrotza jaurti zidan.

–*Amigo!*, haserretu beharra daukat nirekiko hartu duzun pater jarreragatik. *Padre padroneak* niri! Bost urte dira burkide onak garena, baina horrek ez dizu inolako eskubiderik ematen hola mimatzeko ni. Ez nauzu tratatuko ume ergel bati lez.

Eta errebolberra altxatzeko imintzioa egin zidan. Ene mugimendu saioaren aurrean, abildadez jiratu zen albo batera Echevarria, ukabilarekin derrebeskoa lepoan jo eta neure kamaina gainean estanpatu ninduen. Altxatu nintzenerako, ateari bizkarra emanaz zegoen ja bera, *tenientetente!*, errebolberraren kanoia kopetan zuela. Bere begiak beiratsuak ziruditen, haren sumina eutsiz ariko bailiran.

–Aski da, Arthur!, –deiadar egin zidan, grinaz. Ofiziala eta zalduna naizela oroitarazi nahi dizut.

–Paco, Jainkoen izenean...

Haserre, ezker-eskuin ezezka mugitu zuen burua.

–Ez. Nahikoa. Aditzen didazu? Jainkoaren amoreagatik, gizona, nazkaturik naukazu.

Kolpekaria sakatu zuen. Berriro.

Batera jaitsi ginen ofizialen kantinara, eta biotako inork ez genuen hitz egin. Gau hartan hitz gehiagorik ez genion egin elkarri.

Badaezpada, hurrengo goizean, gure nagusia zen Leblanc koronelarekin hitzordua eskatu nuen. Jaun handia zen hauxe, enborra lodi, eta jaka justuegi zeramana. Bere mahaian eserita geratu zen derrigorrezko agurraren ostean; eskuak ezpainen punttan zituela entzuten zidan bitartean, begiak tinko.

Nireak bukatutakoan, hatz potoloak gurutzatu eta, aulkia mugituta, behar baino argalagoak ematen zuten izterren gainean ipini zituen. Hasperen egin zuen. Dreyfus aferaren garaietan giro haietan mugitzen ziren graduazioko militarra zirudien.

—Sentitzen dut, *mon enfant*, ezin baitut, ezin baita ezertxo ere egin. Gutako inor ez da gai hori eragozteko. Zaila da zu bezalako ipar itsasoar batek halako kasu delikatu hau preziatzea. Echevarria kapitaina ofizial eta zaldun espainola da. Beno, *eusko-espainiarra*. Errendizioarena saihestezina da, eta dudarik gabe, ohorezko kuestiotzat jotzen du berak errusiar erruletarena. Ezin gara tartean sartu.

—Baina, ene koronela, suizidioa da-eta!!! Ez al zara sikiera saiatuko halakorik galarazten?!

Koronelak arin asko goratu zuen ezker eskua eta neure aurrean ezarri, nire protesten kontrako langa bailitzan. Eskuineko eskuarekin diosala egitera zihoala zirudienean, bat-batean geldirik geratu eta:

—Ez da bere buruz beste egite arrunt bat —esan zuen bero-bero—. Hori ekintza desohoragarria litzateke.

Geroxeago, irribarrea loratu zitzaion eta nire traukilkeriaz gupidatuko zen.

—Sakonean, penatzen nauzu, *mon ami*, zure gurasoen odolak konpreniarazten ez badizu asunto ximple honetaz. Baina nola horrela denez agidanez, soldadu profesional gisara planteatuko dizut, segituan ulertuko duzun eran: Echevarria kapitainaren *destinu petralean* interferitzeari lagatzeko agintzen dizut.

Ohiko takoikada eta besteren ondoren, kasernako bulego eskas hartatik sentsazio batekin atera nintzen: koronelak uste zuela ipartar

guztiak erremediorik gabeko ergelak ginela. Ohore kontuak bost niri, baina zer egin?

Harritu ninduen, hobe esanda eskandalizatu, hurrengoa deskubritzea izan nuen: gure kantinako ofizialak (haietako gehienak Pirinioz pekoak, espainiar eta portugesak, Alpeetatik beherakoak, italiarrak, latinoak ziren ia denak, juduren bat...) koronelarekin eta Echevarriarekin ados zeudela.

Azken hau, gure *sujetua*, kantinan bertan ez zegoenean, talde isilkariak osatu eta gaiaz ahoz-ahozpeztik hizketatzen zutela, kokotsa erpuru eta hatz erakuslearekin ukituz, buruarekin adostuz era solemnean eta jakitunean, eta iradokizunak xuxurlatuz asunto delikatuaz, baitezpada euren hizkuntza desberdinetan, edota atzeritar legioaren frantseseraz.

Sigmund Dreyer teniente degradatua soilik, basamortuko azeri deitutako Rommelen agindupean koronela izana Afrikan, mantendu zen aparte:

–Zer gehiago espero dezake gizon zibilizatu batek latindarrengandik? – galdetu baino gehiago ontzat eman zidan mesprezuz–. Aktoreak izan behar lukete denak!

Baina, jakina, Piotr Korchagin, gure soviatar-ohi siberiarra, ofiziala berau ere, izan zen poza agerian jarri zuen bakarra. Momentu libreetan jarraitzen ninduen, bere esku puskekin atentzioa eskatuz, sinpatiazko eldarnioen antzekoekin, hala-moduzkoak esanez:

–Aaa, Otto! Ez al da gauza ederra? Ez ote da hunkigarria? Ez dizu bihotza erdiratzen?

Arima errusiarra izango zuen, baina azkenerako garrasi eta guzti egin behar izan nion arte:

–Noiztik nauk Otto? Arthur! Txatxua! Subalternoa dirudik. Burua apurtu behar dik-eta euskaldunak!

Piotrrek harrituta, kezkaz begiratu ninduen; bere bisaje gajoak, aurpegiera mozoloak garbi ematen zidan aditzera:

–Argi, noski-troski! Hori da jokoaren helburua!

Echevarriaren errusiar erruletaren jokoak ez zeukan ordutegi jakinik. Batzuetan lubakiko babeslekura iritsi bezain azkar egingo zuen; bestetzetan soina garbitu ondoren arte itxoingo zuen; beste okasioren batean afalostera arte ez zen saiatuko, edota akaso etzateko ordura bitarte, are zain egongo zen.

Gauza ziur bakarra zegoen: fronteko lerroa uzteko unetik hasita, oheratzeko ordura bitarte, beti jokatu zuela bere partida heriotzarekin gure heroiak. Gauero gurtzen zuen Herioren Perkutorea.

Normalean, neu nintzen lekuko bakarra. Bistan zen, gertuko batzuek ere bazekiten, hotsa zabaldua zegoen, eta gauero bere baitan hartu beharra zeuzkan gure kantinak beste babesleku batzuetako ofizialak ere; ze bazirudien haiek ere ez zutela zeregin hoberik, ez bazen zain egotea, gertaeragandik hurbil egoteko esperantzan, harik eta posibilitate estatistikoak Echevarriaren aurka bihurtu, eta bere buruaz beste, zapart! egin arte

Zurumurrak ere bazebiltzan, apustuak antolatzen zirenekoak, alegia: ea ze egunetan suertatuko zitzaion geure gizonari behin betiko bala. Naturala denez, gure babeslekuan zerikusirik ere ez genuen izan nahi halako negozio lotsagarriekin. Subofizialak eta haien menekoak, magrebiarrak ere baziren tartean, baita amazigheraz zekitenak, baina hauek soldadu arruntak izango ziren.

Azken finean, Echevarria laguna zen, lagun mina esatera nindoan. Halere, halako batean, hainbesterako jakin mina ere sortu zitzaidan, nire kabuz ikerketa bat abiatzeko, burutzekotan, noski.

Gela *xaxtarreko* bakardadean, neure errebolberrarekin esertzen nintzen. Deskargatzen nuen eta kartutxo hutsa sartzen nuen zilindroan; gero, berori jiratu eta ene zortea probatzen nuen. Balizko fatidikoarekin esperimentatzen.

Simulakroaren aurreneko tandan 12 aldiz irabazi nuen posibilitate hilgarria tokatu aurretik. Bigarrenengan, 5.-a jiratzean irten zen. Hirugarrenengan, 18raino iritsi nintzen, galdu aurretik. Eta aldi oso

interesante bat ere izan nuen: zorteak 38 aldiz lagundu zidan behinola. Baina neure guardia-txanda egiteko deitu ninduten orduan, eta froga horretan geratu zen, amaitu gabe.

Astebete igaro zen. Bene-benetakoaz ari naiz: 7 alditan ez zen perkutore-pean erori Echevarriaren bala. Hurrena, berriz, 8., 9., 10., 11. eta 12. Gauetan..., kapitain bizkaitarrak zalantza izan zuen.

Halako batean, nire kamainan etzanda nengoela, gorputz azpiko lastairari eta niri eusten zigun metalezko sarea bezain tenkatua, sabaiari ez baino Pacori begira ari nintzaion zeharka. Afalostetik pixka baterakoan, Echevarriak bere errebolber koipeztatua, distiratsu, prestatu berria zuen jokorako, kanoia lokian ipini, eta... zalantza berriro ere. Eskua dardarka zuela begi bistan neukan.

Arma jaitsi eta aho lehorra garbitu zuen beste eskuarekin.

–Oso gertu dagoela sumatzen dut, –esan zuen sinpleki.

–Zergatik ez duzu bistadizo bat jotzen?, nik.

Bere zalantza bion arteko isiltasun ezerosoa bilakatu zen. Emozio kontraesankorren nahasketa sentitzen ari nintzela konturatu nintzen. Ez nuen neure laguna ikusi nahi bere garuna mila zatitan aireratzen, eta halere, hain urrunera eraman zuen indar moral hori erortzen ari zitzaiola usnatzeak estuasunean murgiltzen ninduen. Enbarazua sortzen zuen kasik.

Baina instant batean animatu egin zen. Buruaren mugimendu zakar bezain irmoarekin, errebolberra zutitu eta esan zuena:

–Ezinezkoa. Hori tranpa egitea litzateke.

Hamabigarren aldiz sakatu zuen katu kolpekaria. Ezer ez.

Kamainan etzan eta lotarako ipini nintzen, dardarka.

Hamairugarren egunean iritsi ziren paraxutista erraldoi batzuk. Granadak gerrian zituztela, armaz josirik, betaurreko beltzak zeraman eta SSetakoa zirudien gizon tantai bat zuten komandante *frantxutek*. Errefortzuek ez zuten status quoa aldatu, baizik eta geldiezinezko derrota atzerarazi, apenas pixka batean.

Egun hartan, ofizial berrietako bat, Cañas delako bat, esleitu zuten gure kantinarara. Eskura beste inor ez zenez, bere gelaz jabetzen lagundu behar izan nion. Zaldun espainiar oso formala zen itxura batean, 40 bat urtekoa, eta Echevarriaren antza txikiren bat ere hartu nion. Neure logela bere aberkide-edo batekin konpartitzen nuela komentatu nionean, haren izena galdetzeraino eta guzti interesatu zen. Erlaxatu zela zirudien.

–Echevarria kapitaina.

Era nekaezinean espainolak goraipatzen ari zitzaidan. Isilduta, begirada kurioso batekin itzuli zen nigana Cañas.

–Alfonso Echevarria kapitaina?

–Ez, ba. Paco Echevarria. –Segituan espainiarrek aurretik berezko izen bat baino gehiago izan ohi dutela gogoratu, eta zera erantsi nion: –Gutxienez... Paco Echevarria Altamira, hori da beraren espedientearen datorrena, behintzat.

–Eta Echevarria horrek Espainiako azken gerran borrokatu ote zuen ba al dakizu?

Baiezkoa adierazi nion. Jakin-minsoa atera zitzaidan.

Cañasek, “ajaaa!”, esaten den moduko gozatua hartuaz, gerrikoa libratzen duenaren antzera, bere kautan baieztatu eta baieztatu egiten zuen buruarekin, mantso eta deliberatuki. Aurretik esana laga zuen:

–Beno, jada ez dugu gehiago hitz egingo gaiaz jaun hori ezagutu arte. Baliteke ez izatea nik esaten dudana gizon berbera.

Eta bere taldearengana itzultzen zela ohartarazi zidan.

Gau hartan, Echevarria izan zen kantina-jangelara iristen azkena. Sartu zenean, eserita geunden, ardoa banatzearen errituarekin entreteniturik. Cañas kapitainak zuzen-zuzen begiratu zion, bere edalontzia mahai gainean paratu eta altxatu egin zen, haren gorputzak hartzen zuen altuera osoan. Eta, astirik hartu barik, koronelarengana zuzendu zen.

–Jauna –esan zuen formalki, ahoz gora, edonork entzuteko moduan–, ezin dut Echevarria kapitain horren mahai berean jan-edan. –Gero, lasai asko,

bere nazionalitate berekoengana zuzendu, eta beraien aulki ondoan geldirik zegoela honakoa oihukatu zuen:

–Paco Echevarria kapitaina salatzen dut koldarkeriagatik! Etsaiaren aurrean desertatzeagatik salatzen dut Paco Echevarria kapitaina! Echevarria kapitaina salatzen dut faxista madarikatuen bandora errenditzeagatik, bere larrua salbatzearren!

Sigmund Dreyer tenienteak eztarriko karkasa zaratatsuki garbitu zuen, eta koronelak, Cañasen aldera begira barre-idurika, erregelamendua oroitaraziko zigun:

–Beldur naiz, kapitaina, Legioa ez dela lekurik egokiena alderdi politikoak larrutzeko... deitoratzeko. Gure ordenantzek diote. Makiekin noizbait elkarlanean, eta nazien aurka ere borrokatu gara legionariook. Endemas, ez dakit zehazki zein gudaz ari zaren. Hainbeste izan dira penintsulan, amigo mio. Eta, azkenik: nor da, ba, Paco Echevarria delako kapitaina zuretzat, zuk hori eta horrenbestez malgizontzat jotzeko?

Soldadu itxurosoen antzera, Cañasek dena zuzen bideratu zuen. Lehenbizi Dreyerren aurrean makurtu, eta:

–Barkatuko nauzu, jauna. –Eta koronelarengana biratuz, zera azaldu zuen:

–Jauna, espainiar guda zibilaz ari naiz. Echevarria jauna eta biok brigada berekoak ginen. 1937ko ekainaren 19an, gizon honek, Echevarriak, etsaiaren aurrean desertatu zuen Bilbon. Eta beranduago, egun berean, errebeldeei entregatu zien bere burua. Desafioa luzatzen diot traidore honi, defenda dadin!

Guztiok jira egin genuen Echevarriari aurrez aurre behatzeko. Aurpegia, masailak, sudur, belarriak, eta hori guzti hori, horizta lehor kolore gisakoak hartuak zeuzkan, griskara ere bai. Denen begiradei aurre egin, baina fitsik ere ez zuen esan. Mahaiburu aurrean zurrin makurtu, buelta erdia eman, eta kantinatik atera zen. Kito.

Akusazioak hain absurduak ziren, Echevarriak ez zuela ezta lanik hartu sikiera bere burua defendatzeko ere. Hobekiago ezagutzen zutenentzako utziko zuen zeregin hori. Koronelak ezpain estuetatik hatz bat

pasa zuen, Cañasengan erreparatuz pazientziaz, gainerakook geure purrustadak jaurtikitzen genizkion bitartean espainolari.

Azkenean, koronelak danbatekoz mahaia kolpatu zuen, ordenua ezartze aldera.

–Cañas kapitaina, pentsatzen dut posible dela zeu izatea oker dagoena. Vizcainoa aski ezaguna dugu hemen, aspalditik. Gainera, kontsideratzen dut 19 urte denbora dezente dela zuk ez gogoratzeko behin konbatean ezagutu zenuen pertsonaren aurpegia, ezta? Ez ote zinen zu erratuko gizonaz?

–Litekeena da, jauna, jakina. Baina, kasu honetan, uste dut ezetz.

–Motel motel –entzun zen bat-batean jendartetik–, ekibokatu egiten da ezbairik gabe. Entzun nazazu. Echevarria ez da inolako koldarra. Egunero dabil lehendabiziko su-lerroan. Egundo ez da saiatu ihes egiten.

–Aja! –erantzun zuen Cañasek–, frontean iraun du, hori bai, baina, lagun, galdetzen dizudana: gorputzez gorputz topatu da gorriekin, beltzekin, moroekin?

–Ba, bai; ala ez? Halere...

–Jaungoikoak ala Deabruak guarda, gizon; ziurtatzen dizut eurekin topatzen bada, arma zuriak inguratzen zaizkiola ikusten badu, alfanjeez inguraturik bere burua, ospa egingo duela...

–Orduan zuk esan nahi duzuna da Echevarriak beldur diola Heriori aurre egiteari?

–Beldurra! –hitza deiadarkatu zuen Cañasek–. Horrek nahiago luke autolesionatu. Gizon hori ezagutzen dudala, diodala, diot...

–Cañas kapitaina –oihu egin beharrean nik–, errusiar erruleta ohorezko jokoa dela uste duzu zuk?

Aipatuari begi-kliskak aterako zitzaizkiola, tik-tik-tik, tika bekainean eta pilpiraka begiak, galdetzen nionaren motiboaz duda eginez...

–Ohoragarria? Ondrosoa? Jakina ondratua dela.

–Arriskutsua dela deritzozu?

–Arriskutsua? !Por los clavos de Cristo! *!Me cago en tu puta estampa!*
Herioren jokoa da-eta!

–Hortaz, joko arriskutsu hau praktikatzen duen gizonak heriotzari aurre egiteko beldurrik ez duela ez duzu uste?

Durduzaturik nabari zitzaion Cañasi. Seguruenik, bazekien tranparen batetara eramaten ari gintzaizkiola. Baina, zer egin zezakeen?: buruarekin baiezkoa, besterik ez.

Denok erlaxatu ginen orduantxe, aho beteko barrez.

–*!Sacrebleu!* Echevarria kapitainak bi aste daramatza, ba, errusiar erruletarekin jokatzuz, arrakastatsu egundaino, –informatu zion koronelak espainiarrari.

Eta hau erabat txunditurik geratu zen. Kokotsa ukitu eta gure aurpegi irribarretsuen panoramika osoa begiztatu ahal izan zuen.

–Ezin dut sinetsi –marmarka ari zen, bakarriketan–. Ziur nengoen... ezagutu nuen gizonak behin ere ezin egin ahal izango zuen hori, sekula ere ez zezakeen... Eta koronelarengana itzuliz:

–Desenkusak eskatzen ditut, jauna; baina derrigortuta nago esatera, sinetsi aurretik ikusi beharra daukadala.

Nire aulkia atzeraka bota eta altxatu egin nintzen.

–Itxaron, koronela. Seguru nago Echevarria kapitainak plazer hori emango diola Cañasi gau hau amaitu aurretik. Dueluak eta beste ezerik ez du izango lekurik.

Eta arrazoi osoa nuen, zoritxarrez. Pasiluaren erdian nindoala entzun nuen tiro hots estonagarria!

Balaren inpaktuak aulkitik urrutira bidali zuen atzeraka Echeva, gure Paco. Mahaitik urrutitxo zegoen, eta segundotan ahul, flakiak joa zirudien, uzkurtua, hiltzear, agonia betean, ez bazen ia seko hila. Balak kopetaren

eskuinaldean egin zion zuloa txikia zen. Ez nuen gorpua jada irauli zauri hilgarriaren itxura frogatzeko. Ezagunegia nuen ikuskizun hori.

Nahikoa beta izan nuen errebolberra jaso, ireki eta barrukoari begiratzeko: segidan gainerako burkideak entzun nituen trantsitutik korrika zetozela, 'gainean nituen'.

Hitz bakar bat bera ere esan barik itzuli nintzen, eta lurretik jasotako bala-zorroa eta arma entregatu koronelari, besteak sartzearekin bat. Gure nagusiak begirada errukitsu bat bota zuen Echevarriarengana eta, ondoren, errebolberraren zilindroari erreparatu zion arretaz.

—Aukerak aldatu zituen —xuxurlatu zuen—; bost bala bete, huts bakar baten kontra —Cañasi erakutsiz—: mostra emateko era lamentagarria, caballereteⁱⁱ, baina uste dut honek erantzuten duela zure galdera. Heriotzari aurre egiteko beldur den gizonak ez du jokatzeko errusiar erruletan 5 errekamara kargatuak dituela.

Cañas kapitainak aurpegi txarra jarri zuen.

—Askok sentitzen dut hau guzti hau —murmurikatu zuen—, askok sentitzen dut.

Behin gorpua trintxeretatik atera zutenetik eta ordenantzak dagoeneko gela garbi utzi zuenean, gure gelako atea itxi eta nire armairura joan nintzen neure balen uhala bilatzera. Patrikatik atera nuen 6. kartutxoa, Echevarriaren errebolberretik hartu eta lekuz aldatu nuena, justu koronela eta gainerakoak ailegatu aurretik bertara. Neureekin batera ipini nuen bala. Zenduak aipatu tranpa, bala horixe. 6 zuloetatik 6 beteak zituen, gizajoak!

“Saltarse los sesos” esan zuen espainiar batek geroago kantuan. Beste batek *“Saldarse”* esanez zuzendu zion, zinikoki. Muinak barreiatzea ala konturen bat, zorren bat kitatzea, zer egin zigun gure lagunak? Bien ala biak ez dira batere barre egitekoak, heriotzaz barre egiten inor gutxi ikusi dut nik... Besteenaz bai, ez norberarenaz!

Jada berdintsu izango da. Auskalo nola izan ziren Bilboko “Burdinazko Gerrikoaren” kontuak, batek daki Santoñako gartzelan amaitu zutenen, italiarren aurreko errendizioaren, berri zaharraren atzean zer egon zen...

Kontua da Echevarria soldadu bikaina izan zela seguruenik Euzkadin. Zintzoegia. Bilbokoaz geroztik esan gabe doa, a ze balentriak! Bere azkenean ere zeresanik ez, eta lagun on puska bat. Ez nuen ikusten inolako arrazoirik suizidioaren salaketa bere zerbitzu orrian agertzeko moduan uzteko. *Nipadio*.

(Arthur C. K. legionarioaren testigantza)

Usurbilgo Lehortegi edo 'Sedantegi'-an (sic) 2022ko udako egonalditxo batean aurkitutako eskuizkribu batetik, erdi transkribatu / erdi-idatzia; bertatik alta hartuta, distantziaz, amaitu berri du hau, 2023ko neguan, San Balendin egunez, Jon (Mikel) Arano (Aramendi)-k.

ⁱ “!No te enrolles, Charles Boyer!”

Nori ez ote digute esan horixe? Charles Boyer handia nor izan zen eta bere filmetaz zipitzik jakin gabe, gehienetan, noski! Bada, *Pepe le Moco*ren papera eginez ikusi egin behar da aktore frantses ospetsu hori 'Argel' filman...!

Baina ez naiz Boyer bezala enroilatuko, ez *boyeurizatuko*: Aljereko Kashban, Peperen 'erresuman' sartzea nekeza zen, baina soldadu frantziarrak bai sartzen zirela, eta guk ez bezala torturak ere praktikatu zituztela... Frantzia-iskinako, ipar-euskalerritar lagunak ere baziren, errondan besterik ez izan arren, Kashbatik at kontatu dituztenak gorriak eta beltzak.

Adib., Dominique Peillenek kontatuak ditu “Aldjezairia askatuta” liburuan eta beste: erizain izan zen han, eta sarjentu bat ikustera bidali zutenekoa; hara iritsi, gelako atea jo, sartu, eta hor ikusi zuen: “*Bazen gizon bat biluzik, lotua. Bazituen elektrodo batzuk barrabiletan, beste bat ahoan. Eta elektrika sorgailu batekin elektrizitatea eta gizona lehertzen ari zen. Animalia bat hiltzen ari delarik bezala ikusi dut hori*”.

Gerletan, lehendabizikoa hiltzen Egia da: halako *gerra totala* ezarri zuen frantziar *grandeurrak*, zeren eta kolonia uztekotan ez ziren hola eta hala; OASekoen terrorismoa ahaztekoa ez izan arren, euren ustez izugarritzko atentatuak jasaten zituzten *pied-noir*sek, zangobeltzak...!

Gillo Pontecorvoren filmetan egia latzak, eta bere “Aljereko batailan” ikusten dira bertako paisaiak, paraxutista erraldoiak batetik, FLNAeko *mudjahidinak* edo *felagak* bestetik, zibilak

tarteko, independentzi gerla lazgarria... Inpresionagarria. Bizi izan ez duenak ez daki. Irakurrita, filmak, dokumentalak ikusita, zerbait bai...

“Morts pour la patrie”. Hori badakit, ez da *glamour pour la patrika*: oroitarrietako hitz horiengatik-edo, Verdunen eta mundu erdian ipar euskal herritar asko hil zirela, 6.000 lagunetik gora, populazioaren %3a, barnealdeko herrietako gazteen %25a, zaurituak aparte. Milaka gaztek desertatu eta mugak gainditu ohi dituzte XX. mendean.

(Hurrengo ere ez da kasualitatea: Aljeriako gerran milioi bat hildako izan ziren, espainiar estatuko guda zibilaren antzerako ondorioa.)

Aldudetik Nafarroako Basaburura etortzen ziren gure gurasoen bestaldeko lehengusuak, I. eta II. Mundu Gerretan; Vietnam eta Aljeriara ez joateagatik bai omen ziren desertoreak; era berean, gure zaharren senitartekoak ere alde egin zuten agidanez gerra zibilekoan eta soldadutzatik ihesi Baigorri aldera.

Gure amak ipartar lehengusina batekin kartak trukutzen zituen, eta esaten zuenez, zenbat h erabiltzen zuen hark! Hiletetara joan zalea ere ez naiz izan, eta ez ditut ezagutu iparraldeko tartekoak... Zer egingo diogu ba? 40 urte pasata jada, kasik hobe, ez dauka erremediorik eta!

(Orain arteko lekukotasunaren aurkitzailea: J.M. Isasmendi)

ⁱⁱ *Caballerete* nazi-zalea?

Epilogo, txistea dirudiena, baina inkognita galanta utzi zidana:

Bagoaz deskoadrilatuen koadrila bat Donostiatik 1970´amaieretan, 1980a (?), Alde zaharretik poteoan, lasai aski udako arratsalde batez, eta non ez garen konturatu ere egin hain ohikoak ziren manifa haietako bat konbokatua zela.

A ze jaleoa!: poliziak ez ziren grisak, ez berdeak, baizik eta marroiak..., ez urdinak, azken batean denak berdinak (ez gorri ezta beltzik ez zen oraindik), eta gazteak oldarrean, eta non sartu jakin ezinik gu (ez koldarkeriagatik, ardoa edanda pipa erretea kortei-asmoan, *fregaketa* itzelerako ez geundelako...), eta halako batean, zer eta gutako batek taberna dirudien letreroa ikusten duela, ‘Cañas’ jartzen zuelako...

“—Ba, hantxe aurkituko gaituk, kaletik sartu eta tabernak atzeko atea izango dik eta parte zaharrera ihes egingo diagu, fale?”

Sartzen gara korrika ‘Cañas’ delakoan, eta taberna ez, baino arropa denda zela, atzeko aterik ez iheserako, eta kristoren makilazoak eman zizkigutela marroiak banan-banan ateratzen ginen heinean...!

Baina aurretik, gure bila sartu behar izan zuten, ze hola eta hala ez ginen ateratzen, eta izugarrizko txikizioa eragin zuten poliziek denda hartan, gure parapetoa hautsiz. Hantxe, karrera hartuta korrika ateratzeko prest belaunikaturik nengoela, kristal artean, non ikusten dudan izen-abizen espainiar jabedun baten kartila militarra: XYZ Cañas Otsoa de Iribe (?), Cañas Gomez de Segura (?), Cañas Ayala (?), jada ez dut akorduan, 40 eta piku urte joan dira...

Ziurtzat daukadan bakarra da, zerrauts, koadro marko eta beira hautsien artean, Burdinazko Gurutze nazi batez gain, División Azuleko kartila bat ere haren ondoan zegoela... Penatxo dut haiek ez hartu izana, eta bai makilkada pareia.

Ez dut uste “De Caña” edo “Cañero” jartzen zuenik, arropa denda ote zen ere zalantzan nago ia... Frogarik ez dut eta nork sinetsi behar dit halako istorio fantastikoa? Beno, urte asko bizi eta ez aztoratu ezertxorengatik ere, e!